

ANOETA ▶

Kantxan
leku baten
bilaIgor Odriozola
zesta-puntan ari da ▶ 4Autoenpleguko 26 proiektu
martxan jarri dira 2003an

TOLOSA ▶

Manu
Azkarateren
askatasuna
eskatu duteManifestazioa deitu
dute hilaren 23an ▶ 3

GORAKA ▶ Ekimen honi esker
goraka doa urtez urte
eskualdearen garapena

BILERAK ▶ Tolosaldea Garatzenek
34 proiektu aztertu zituen iaz;
jarraipen bilerak egiten dituzte ▶ 2

Jende ugari elkartu da
lehen egunetik Ibarako
I. Garagardo Festan

AUKERA ▶ Inportazioko 17 garagardo dasta
daitezke; bederlatzi taldek antolatu dute diru
laguntza lortzeko eta herri giroa bultzatzeko ▶ 5

DANI GIBELALDE



Eguzki plakak. O.ESKITXABEL

ALTZO ▶

Eguzkiaren
indarrak
baliatzeko
modu
desberdinak

Energia berriztagarriak
erabiltzen dituzte argia
lortzeko ▶ 7



honekin_estilistak@hotmail.com

Pintor Lekuona, 2
20400 TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

**Egin zaitez
harpidedun!**

Tolosaldeko HITZArekin elkarlanean

Gure harpidedunen artean
ILEAPAINDEGIKO ZERBITZU OSOA,
ILEAREN TRATAMENDURAKO BI
PRODUKTU eta SOLARIUM-erako
10 SAIOKO BONOA zozketatuko ditugu

EKONOMIA ▶

Autoenpleguari esker, goraka doa eskualdearen garapena

2003an 34 proiektu aztertu zituen Tolosaldea Garatzen-ek eta 26 dira jada abian



Tolosaldea Garatzen-eko arduradunak, elkartearen egoitzan, herenegun, Mendi 4WD enpresako arduradunekin hizketan. I. ETXEBESTE

2003AN SORTUTAKO ENPRESAK ▶

Enpresa	Jarduera	Kokapena
Ernio Bea Hertz Aginen klinika	Hortz-haginetako klinika	Villabona
Mendi 4WD	Ibilgailuen konponketa	Irura
LARDIES altzariak	Altzariak zaharberritzea	Tolosa
Arindu Fisioterapia Zentrua	Fisioterapia zentroa	Villabona
KIUREN oinetakoak	Zapata denda	Villabona
PAUSOKA Podologia	Podologia zentroa	Tolosa
Iñaki Mendibil	Pakete banaketa	Ibarra
UNICO Ibarra	Elikadurak	Ibarra
Itziar Ugaldede arkitektura	Arkitektura bulegoa	Villabona
FACE EDER	Estetika zentroa	Ibarra
CYBER 7	Cyber	Tolosa
ITURRIAGA Iturgintza	Iturgintza	Gaztelu
NEREANE	Mertzzeria/lentzeria	Zizurkil
TOLMIC Informatika	Informatika ikastegia	Tolosa
IZETA Exkabazioak	Eraikuntza/indusketak	Hernalde
NELATZ SL	Enkofratuak/eraikuntza	Tolosa
Rte. BOTARRI	Jatetxea	Tolosa
BARRIOLA Maestros Cortadores	Ganibetaz moztea	Tolosa
Imanol Jimenez	Zurezko muntaiak	Tolosa
L.L. Interiorismo.Escaparatismo	Dekorazio bulegoa	Villabona
Rte. TXINTXARRI	Jatetxea	Alegia

IRATXE ETXEBESTE

Autoenpleguari esker, goraka doa urtez urte eskualdearen garapena. Hori dio Tolosaldea Garatzen-ek. Hala ere, norbere enpresak sortzen dituztenei errekonozimendurik ez zaiela egiten uste du, «arriskatu behar izaten duten diru kopurua handia delako eta horiei esker ari delako, hein handi batean, eskualdea garatzen».

Euskal Herri mailan bost herritarretik batek (%22ak) egiten du autoenpleguaren apustua. «Kopuru handia da; bultzatu egin behar da, beraz». Horren harira, eta «ekintzaile berriei laguntzeko eskaintzen duen zerbitzuari esker», Tolosaldea Garatzen SA «erreferente» bilakatu da eskualdean bertako arduradun Bernardo Goikoetxearen hitzetan, «azken hiru urteetan Tolosaldea Garatzen-ek sortutako enpresarik ez delako itxi».

2003an ia 180 lagun artatu zituen Tolosaldea Garatzen-ek. 34 proiektu aztertu zituen guztira, eta bideragarritasunik bazuten edo ez aztertu ostean, 26 jarri zituen abian. Azken hitza ekintzaileek dutela, baina iragazki hori pasatzea «beharrezkoa» dela diote arduradunek, negozio bat martxan jarri nahi dutenek «mugen eta abantailen» berri izan behar dutelako: «Negozio bat ez da itsu-itsuan ireki behar, gaizki joateko, eta,

ondorioz, ixteko arriskua da goelako. Iragazki horrekin porrota saihestu nahi dugu».

25 eta 35 urte bitartekoak dira ekintzaile berriak, erdi mailako prestakuntza dutenak. Tolosaldean bizi direnak eta lehendik ere nolabaiteko eskarmentu profesionala dutenak. Eskualdean bizi ez arren, haien asmoak aurkeztera Tolosaldea Garatzen-era jotzen dutenak gero eta gehiago dira, gainera.

Jarraipen bilerak

Abian jarri diren 26 proiektu horietan egindako inbertsioa 1.523.565,68 eurokoa izan da guztira. Proiektu bakoitzeko batz bestekoa 58.598,68 eurokoa da, eta 1,96 lanpostu sortu dira batz beste: %50 gizonenak eta %50 emakumeenak. Bestalde, ehun bat bilera egin ditu Tolosaldea Garatzen-ek aurreko urteetan sortutako 19 enprekin, izan duten bilakaera aztertzeko eta aholkularitza eskaintzeko.

Izurako Mendi 4WD enpresa da horietako bat. Arkaitz Garaburu alkizarrak eta Xabier Gorostegi alegiarrak sortu zuten iaz, eta «gustura» direla diote. Auto konponketarako tailer mekanikoa zabaldu dute, eta 4x4 ibilgailuetan espezializatu dira. «Mendi eta baserri inguruan bizi gara. Ibilgailu mota horren konponketarako hutsune handia zegoen eskualdean,

DATUAK ▶ ENPRESAK

2003KO JARDUERA

▶ Ekintzaile berriak. Pertsona artatuak. 177. Aztertutako proiektuak. 34. Eratutako enpresak. 26. Lanpostuak. 51. Inbertsioa. 1.523.565,68 e. Asmoak tramitean. 2. Proiektu ez-bideragarriak. 6.

▶ Enpresa sortu berriak. Zerbiztuak. 14 (%53,8). Merkataritza. 3 (%11,6). Eraikuntza. 4 (%15,6). Ostalaritza. 3 (%11,6). Industria. 2 (%7,8).

▶ Enpresen kokapena. Tolosaldean. Tolosan (8); Villabonan (5); Ibarra (3); Iruran (1); Gaztelun (1); Zizurkilen (1); Hernalden (1) eta Alegian (1). Tolosaldeko kanpo. Bana, Aian, Astigarragan, Lazkaoan, Andoainean eta Donostian.

▶ Egitura juridikoa. Sozietate mugatua. 4. Ondasun komunitatea. 4. Norbanako enpresa. 18.

B. GOIKOETXEA

TOLOSALDEA GARATZEN

«Erreferente bihurtu da Tolosaldea Garatzen eskualdean; azken hiru urteetan sortutako enpresarik ez da itxi»

XABIER GOROSTEGI

MENDI 4WD

«Lana egiteko gai izatea garrantzitsua da, baina norbaitek negozio bat irekitzeko zer behar den esatea ere bai»

eta merkatu bat ikusi genuen hor: lantegia irekitzera ausartu ginena». Sortzear duzun lana egiteko gai izateak adina balio du Garaibururen eta Gorostegiren aburuz («negozio bat irekitzeko zer egin behar den norbaitek esateak»), eta ildo horretatik, Tolosaldea Garatzen-etik jasotako aholkuak «oso lagungarriak» izan zaizkiela diote: «Negozioak aurrera eramatea zilegi da; ia edonoren esku dago, eta laguntza eta babesa badago egun».

Tolosaldea Garatzen-ek Interneten bidez ere emango du aurrerantzean zerbitzu hori Garapen-ekin batera: www.lanbide.net eta www.tolosaldea.net orrialdeetan bezeroek egindako kontsultak 48 orduetan erantzuteko konpromisoa hartu du.

Elduainen Hizkuntza Eskola 2004ko ludoteka

Uztailean Ingelesean ondo pasa nahi baduzu, Zatoz gure akademiamara!!!

DEI EZAZU 943 674 733
TELEFONORA 16:30etik 19:00etara.
epea irekita egongo da maiatzaren 20a arte.

ANTZERKIA ▶

Uhartez uharte, piratak bidelagun

Markeliñe-ren 'Igandoetan piratek jai' ikuskizuna, bihar, Leidorren

L. MONTES

«Ikuslea neskato baten begien bidez sartzen da abentura honetan. Neskatoak eta amonak bereizi egin behar dute, amona erresidentzia batera joan baita. Neskatoa zain egoten da igandea noiz helduko, egun horretan amona bisitatzea joaten baita. Eta, bitartean, pirata batzuk imajinatzen ditu, astean zehar haiekin jolasteko eta uhartez uharte nabigatzeko». Istorio hauxe da Markeliñe antzerki taldearen *Igandoen pira-*

tek jai ikuskizunaren abiapuntua. Udaleko Gazteria Batzordeak antolatuta, bihar ikusi ahal izango da, arratsaldeko bostetan, Leidorren.

Uhartez uharte bidelagun ditu piratak neskatoak. «Horrela, jolasaren bitartez eta imajinazioa erabiliz, piratek beren altxorra aurkituko dute, eta neskatoari lagunduko diote amona dagoen igandetako uhartera egiten duen bidaian», diote Markeliñeek.

Ordubate irauten du emanaldiak, eta sei urtetik gorako

haurrentzat dago zuzenduta, batez ere. Antzezlan honetan aurreko laneko ildoekin jarraitu dute taldekoek: «Alde bateatik, ikusmen harridura bilatzen dugu. Hainbat giro eta egoera sortzen ditugu, elementu xumeak erabiliz: eskailera bat, sare bat, plastikoa eta goma-espuma... Guztiek ikuslearen irudimena pitzea eta antzerkiaren magia aurkitzea dute xede».

Bestalde, haurra emozioen mundura hurbildu nahi dute eta, bide batez, inguruko hel-



Igandoetan piratek jai antzezlaneko une bat. TOLOSALDEKO HITZA

duekin dituen harremanak sentitzen eta hobeto ulertzen lagundu. «Hori guztia, piraten abenturak kontatzen dizkiguten eleberrri handien atmosfere-

ran oinarrituta, ikuskizun dibertigarria, iradokitzailea eta ikusmen aldetik oso ongi zaindutakoa, haurrengana zein helduengana heltzeko».

PRESOAK ▶

«Erakundeen eta gizartearen erantzuna beharrezkoa da»

Bidegabekeriak salatu eta Azkarateren baldintzapeko askatasuna eskatu dute

LEIRE MONTES

«Jadanik Manu espetxeratu zutenetik lau hilabete igaro dira. Behin eta berriz adierazi eta salatu dugun moduan, mende-kuan eta gorrotoan oinarrituriko politikak eraman du espetxera. Ez zegoez atxilotzeko beste oinarri sendoagorik. Arlo askotatik bere askatasuna aldarrikatu dugu. Baina Manu Alkalako enfermerian jarraitzen du».

«Kezkaturik» mintzatu ziren atzo Manu Etxera plataformako kideek eginitako agerraldian. Manu Azkarateren osasun egoerak eta espetxeko erizaindegiaren baldintzak —«zikinkeria, utzikeria, hotza...»— kezkatzen ditu. Azkarate beste bederatz presorekin dago erizaindegian; horietatik hiruk neumonia dute, eta beste lau hiltzorian. «Joan den astean hauetako baten egoera okertu egin zen, eta hiru ordutan ez zen sendagilerik azaldu».

Azkarateri ezarritako hirugarren gradua eta bete beha-



Gizarte eta politika eragile ugari bildu zen atzo. JOXEMI SAIZAR

rreko baldintzak ere salatu zituzten plataformakoek. «Eskumuturreko bat jantzita eraman beharko luke kartzelatik ateratzen den bakoitzean. Eta bidegabekeria biderkatu egin dela iruditu zitzaigun Galindo jeneral ohia laster kalean izango dela irakurri genuenean, horrelako baldintzarik gabe, jakina. Zer esanik ez Manuren kartzelaratzea eta Galindo jeneral ohiaren kaleratzea epaile berak erabaki dituela jakinda».

Azkarateri «baldintzapeko askatasuna buelta diezaiotela» eskatzen dute. Plataformakoen esanetan, eskatzen diren baldintzak «sobera» betetzen ditu: «Bere gaixotasuna larria eta sendaezina da, bere bizia arriskuan jartzearainokoa; ihes egiteko arriskurik ez dago, eta hori frogatua geratu da kalean eman dituen urtetan».

«Horregatik guztiagatik heldurrez gaude eta Manu Etxera ekartzeko saiakerarekin aurre-

ra egin behar dugu». Saiakera horretan, ezinbestekotzat jo dute «erakundeek dagokien instantzietan presio egitea». Alderdi politiko guztiekin elkartzen ari dira, eta Gasteizko Giza Eskubideen Batzordearekin, Azkarraga EAEko Justizia sailburuarekin eta Ibarretxe lehendakariarekin hitzordua eskatua dutela gaineratu zuten.

Manifestazioa, hilaren 23an

Erakundeen jarrera ezezik, gizartearen erantzuna ere beharrezkotzat jo dute. «Lehen ere mobilizazioetara deitu zaituztegu, eta emandako erantzuna ez da makala izan. Manuk eskertu du babesa eta laguntza. Baina ezin gara lasaitu». Horregatik, beste mobilizazio batera deitu dituzte herritarrek, «gure babesa erakusten jarrai dezagun; eta, baldintzarik gabe, Manu dagokion askatasuna berreskura dezan». Manifestazioa hilaren 23an, igandean, izango da, 19:30ean, Triangulotik abiatuta.

MUSIKA ▶

Potemkin eta Sharon Stoner Bonberenean

Gaur, 22:30ean, Potemkin eta Sharon Stoner taldeek kontzertua eskainiko dute, Bonberenean. Biher, berriz, Zaragozako Mallacan, Irungo Izatera eta Andoaino R taldeek joko dute, ordu berean.

ERAKUSKETA ▶

Faustino Aranzabalen lanak Aranburun

Faustino Aranzabaen margolan erakusketa zabalduko dute gaur arratsaldean Aranburu Jauregian. Uztaillaren 3a arte izango da ikusgai.

ARKU-TIRO ▶


Arku-tiro ikastaroan izen-ematea

Udaleko Kirol Departamentuak arku-tiro ikastaroa antolatu du ekainerako. Ferialekuan eskainiko dira klaseak, eta tiro-eremuan praktikak egingo dituzte. Izen-ematea zabalik da 943 69 74 55an (11:00etatik 13:00etara)

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



IGOR ODRIUZOLA ▶ ZESTA-PUNTA JOKALARIA



HITZA

«Pilotak etorkizunerako ez du asko uzten»

laz aukera bat izan zuen, baina ez zen gauzatu; zesta enpresa berri baten sorrerak kantxan lekua egin dio

BIANDITZ IRAOLA

Tenisean hasi zen txikitari, baina aurrera egitekotan kanpora joatea ezinbestekoa egin zitzaion, eta eskuz hasi zen, ondoren zesta-puntari ekiteko. Eskualdeko bazterrak maiteak ditu, baina azkenean ikasketak zirela-eta joan behar izan du. Iruñean aritu da farmazia ikas-

ten, eta bertan dihardu praktikan. Azkenean kanpoan lortu ditu garaipen goxoenak, besteak beste Kuban hirugarren geratu baitzen Munduko Kopan. Orain beste erronka bat du aurrean anoetarrek.

Noiz debutatu behar duzu?

Egia esan, ez dakit ziur. Uztailean izango da, baina xehetasun batzuk oraindik finkatzeko

daude. Adibidez, enpresaren izena oraindik ez dago garbi zein izango den.

Hain zuzen Eusko Basque izan da orain arteko zesta enpresa bakarra. Nolatan sortu da berri hau?

Eusko Basque-ri alternatiba bat bilatu nahi zitzaion, eta Markina eta Biarritzten artean osatuko da koadro berria. Bizkaian eta Iparraldean asko jokatzen da zestan, eta horregatik erabaki hori. Gipuzkoatik Lizarraga eta biok sartu gara bakarrik. Enpresa honek egin nahi duena da lehen eta bigarren mailako bereizketa. Ameriketatik onenak ekartzeko asmoa du.

Zenbat denborarako izango da enpresarekin lotura?

Lau hilabeteko denboraldia izango da, uztailetik urrira. Honek gauza horixe du ona, behin hau bukatuta afizionatuetan jarritzeko modua uzten dizula. **Lehendik ere palmares txukuna duzu. Noraino iritsi zaitzke?**

Ezin da jakin. Kuban Munduko Kopan hirugarren egin nuen, Iruñeko mundialean bigarren geratu nintzen, Espainiako Txapelketa irabazi nuen behin... Ibili egin gara, eta horrelako gauzak ondorioz etortzen dira. Ez dakit honek zenbateraino emango duen, baina ikasketak hor daude, eta zerbait badugu behintzat. Pilota ondo dago, baina etorkizunari begira ez du asko uzten.

Eta ikasketak eta kirola bateragarriak al dira?

Ez da erraza ikasten aritu eta kirol maila jakin bat izatea. Azken urte hauetan ia bi gauza horietarako bakarrik bizi izan naiz.

XIV ORDUKO IBILALDIA ▶



Lehen aldietako partaideak. HITZA

1925eko hamalau zoro

Orain dela 74 urte egin zuten lehen ibilaldia, eguraldi txarra izan arren, hamalau lagunek ekin zioten bideari

B. IRAOLA

Proba gogor eta luze honen tradizioa aspalditik dator. 1925eko ekainaren 7an ekin zioten lehen aldiz hamalau lagunek. Tolosatik goizeko lauetan abiatu ziren, meza entzun ondoren. Garai haietan Xebe Peña estraineiko aldi horietan ibiltarietako bat izan zen, eta bere kronikek utzi digute beraien lekukotza.

Bezperan Igeldoko metereologia zentzura deitu zuten, eta ez abiatzeko gomendatu zieten, eguraldi kaskarra izango zutela eta. Estraineiko aldi hartan parte hartu zutenak mendian ibiltakoak ziren, ordea, eta aurrera jarraitzea erabaki zuten.

Aldarte onean ekin zioten martxari, eta euriagatik lurra irristakorra bazegoen ere, aurrez pentsatutako denboran egin zuten Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugarainoko bidea. 6:23an iritsi ziren, eta han Mikeleteen postu batetik igaro ondoren bi probintziak banatzen zuten alanbrada igaro zuten.

Handik gutxira lainotu egin zuten, eta erdi galduta ibili ziren behin baino gehiagotan. Azkenean, ordea, San Miguelera iritsi ziren, euriagatik erabat bustita.

Bazkaldu eta arropak lehortu ondoren atzerapen handiarekin utzi zuten santutegia. Igaratzatik Amezketa jaiste-ko. Han afaltzen geratu ondoren, 23:40an iritsi ziren Tolo-

sara, abiatu baino hemeretzi ordu eta erdi beranduago.

Lehen urteko gorabeherak oihartzun zabala izan zuten, eta hurrengo urtean bigarren edizioa egitea erabaki zen. 1926ko maiatzaren 30ean ekin zioten berriro beste hamahiru mendizalek.

Bigarren aldian eguraldi hobea izan zuten, eta azkarrago bukatu zuten ibilaldia. Eguraldiagatik ezeez, fedek ere lagundu zien, Xebek kontatzen duenez: «Lekuberrin batzuk meza entzuten geratu ziren, baina ez denok. San Miguelera batzuk aurretik korrika joan behar izan zuten meza entzun gabe gentozela esan eta itzaroteko eskatuz».

Garai hartan ez zen gaur bezelako materialik, baina orduan onenarekin ibiltzen ziren, gaur bezala. Peñak kontatzen duenez «Nafarroako apretxe ondo jasaten dute mendiko marxa luzea, apreta pareta aldatu gabe ibilaldi osoa egitea lortu bainuen».

Etenaldi handia izan zuten ondoren ibilaldiak, hamazazpi urtetan ez baitzen berriro egin. 1943ko maiatzaren 30ean egin zen hurrengo, eta jada 111 lagunek parte hartu zuten. Beste etenaldi baten ondoren 1967an egin zen hurrengo, eta bost urte beranduago ondorengo. Handik aurrera Olinpiar Jokoen urteetan egiten hasi zen, eta aldi bakoitzean aurrekoan, baina partaidetza handiagoa izan du. ◀

DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre
- Ileapaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri
- Bereziak
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpolin
- Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia
- Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Auzular Oinetakoak
- Iratzar Erlojotegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarite Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihokak
- Kanikak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELARAKIN %5*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETETAN.
(Martxoetik ekainera)

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

*Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.

IBARRA ▶ I. GARAGARDO FESTA

Pitxarra eta aparra, barra-barra

Lehen egunetik, jende ugari hurbildu da Garagardo Festara; inportaziozko 17 edari apartsu dira aukeran

DANI GIBELALDE

Pitxarra hartu, eztarria asetu eta aldarre onean egoteko bilgune ezin hobea bilakatu da Ibarako San Bartolome plaza. Atzo arratsaldean, ireki bezain laster, jendetza handia bildu zen herriko lehenengo Garagardo Festan. Edari apartsua gustuko duenak badu non aukeratu, 17 garagardo mota baititu eskura igandea bitarte. Horia, tostata, beltza, zuria, frambuesa, alkoholgabea, arrunta, berezia... ez da eskaintza falta.

Bederatzi taldek elkarlanean antolatutako Festak «talde antolatzaileentzat diru laguntza-oxoa lortzea eta auzolanaren bitartez herri giroa bultzatzea» dute xede. Taldeez gain, herri-tar asko konprometitu dira festarekin, horren seinale da orotara 200dik gora lagun ari direla egunotan lanean. Ilusioz, eta gogotsu ari dira ekinean, egindako lanak fruituak eman eta hurrengo urteetan festak jarraipena izateko.

Antolatzaileek 200 garagardo barril, hots, 6.000 litro behar harko direla kalkulatu dute jende uholdeari aurre egiteko. Jakiei dagokienez, besteak beste, 2.500 saltxitxa, eta 1.000 ukondo ekarri dituzte. Bertako produktuek ere nola ez, badute tokia. Ibarako piparrak, txorizoa, euskal saltxitxak, gazta eta irasagarra, euskal pastela... eskura dira. Pitxarra erosten duen orok, bidai zoragarri baten zozketan parte hartuko du.

Gaur eta bihar 18:00etatik 01:00etara izango da zabalik Festa; igandean, berriz, 18:00etatik 00:00etara. Kultur ekitaldiei dagokienez, gaur Txalalparta Festak alaituko du arratsaldea, eta asteburuan haur jolasak izango dira, 18:30ean.

ZUZENKETA ▶

Olinpiada Txikietan, Kaxubi taldeak ere parte hartu zuela ez genuen aipatu atzoko albistean.



Zabaldu bezain laster hurbildu zen jendea Garagardo Festara. D. GIBELALDE

IBARRA ▶ GIMNASIA ERRITMIKOA

Lan ona egin dute Belabietako gimnastek Euskadiko Txapelketan

Egiguren Euskadiko Torneurako sailkatu da; larunbatean, B mailako finalak jokatuko dira

D. GIBELALDE

Ongi aritu ziren Belabieta Gimnastika Erritmikako gaztetxoak, joan den larunbatean Ibaran jokatutako Gipuzkoako Txapelketaren A mailako finalan. Saioa Sorondo entrenatzailea «pozik» agertu da ikasleek egindako lanarekin, baina ez epaileek hartutako azken erabakiekin.

Goizez nahiz arratsaldez, jende dezente hurbildu zen Belabieta kiroldegira gimnasiako probak ikustera. Alebin mailan, Garazi Egigurenek lehen postua lortu zuen sokarekin, eta esku librean bosgarren izan zen. Azken sailkapenean bosgarren izan zen, eta Duran-gon hilaren bukaeran jokatuko den Euskadiko Txapelketarako txartela lortu zuen. Izaro Esna-



Egiguren eta Esnaola. D. GIBELALDE

ola zortzigarren izan zen sokan, eta esku librean zortzigarren; sailkapen nagusian zortzigarren izan zen. Jubeniletan, Aintzane Otegi eta Mirian Jime-



Egiguren larunbatean. D. GIBELALDE

nez aritu ziren. Hurrenez hurren, zazpigarren eta zortzigarren izan ziren.

Epaileen lana eztabaidagarria suertatu zen. Sorondoren

ustez, sailkapena ematerakoan «erabaki subjektiboak hartu zituzten», eta Belabietako gimnastek «merezki baina postu okerragoak» lortu zituzten. «Azken finean, horrekin, gaztetxoak dira gehien sufrizten dutenak». Epaileen lanaz kexatzen diren Belabietako eskolako arduradunek eskutitz bat igorri dute Gipuzkoako Federaziora.

Larunbatean, B mailakoak

Bestalde, Belabieta kiroldegian, B mailako finalak jokatuko dira larunbat honetan. Belabietatik, Maider Urruzola, Leire Orbegozo, Amaia Gallego, Alazne Ezeiza, eta Onintza Urruzola alebinak ariko dira taldekako proban. Horrez gain, Urruzola eta Orbegozo, banakakoan ere ariko dira.

TXAIRO
Kafetegia

Izena emateko 22:30etan Gaurtik aurrera MUS-TXIMISTA txapelketa ostiralero

SARIAK

1. %40 3. %20
2. %30 4. Kafe osatua

Euskal Herria, 13 • IBARRA • 943 67 21 94

KARLATZ
Garagardotegia

ondo pasa
garagardo azokan

Euskal-Herria, 6
Tel. 943 67 56 36

20400 IBARRA
(Guipuzkoa)

SENDI EKINTZA taberna

pintxo beroak eta ogitartekoak

GARAGARDO AZOKAN ZUEKIN

San Bartolome, 5 • Ibarra • Tel.: 943 67 57 28

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Emaitza bikainekin jarraitzen dute pultsulariek

Maiatzaren 8an Sevillan izan ziren gazteak Espainiako Junior Txapelketan

G. AZKUE

Danena-Olaederra taldeak Espainiako Junior Sub-20 txapelketan hartu zuen parte pasa den astean, Sevillan. Emaitza onak lortu dituzte oraingoan ere.

Taldeko sailkapenean 3. postua lortu dute billabonatarrek eta zizurkildarrek. Bakarkako saioetan, berri, 62 kilo artekoetan Ekaitz Kortajarena hirugarren postuan gelditu zen, brontzeko hiru dominekin. Patxi Hernandezek, berri, laugarren lekua lortu zuen. 69 kilo artekoetan, Jon Sasiain seigarren postuan izan zen eta Aritz Salaberria zazpigarrenean. Eta 77 kilo artean, Teddy Martinezek zilarrezko domina eta bi brontzeko eskuratu zituen.

Jon Sasiainek Euskaldiko Sub-15ean sei errekor lortu zituen: arrankadan, bi denboratan eta total olimpikoan. Teddy Martinezek bat, Sub-17an: bi denboratan 150 kilo altxa zituen.

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

Ekintza ugari Ziotzaren urtemugan

Mahai-ingurua izango da gaur Iriarten; iganderako irteera antolatu dute Orira

GARAZI AZKUE

Zizurkilgo Ziotza kirol elkarteak urtebete darama ekintzak prestatzen. Eta oraingoan ere, egitarau zabala plazaratu dute asteburu honetarako.

Egitaraua gaur jarriko da martxan. Mahai-inguruak emango die hasiera ospakizunei. *Euskal joko eta kirolak* izenburupean, Azurmendi aizkolaria, Josu Bereziartua mendizalea, *Baserrri* arraunlaria, ESAIT-eko kidea Martxel Toledo eta Xabier Usabiaga kazetaria bilduko dira mahaiaren bueltan. Solasaldia, 20:30ean hasiko da Zizurkil goiko Iriarte kultur etxean.

Ekintzek bihar jarraituko dute, San Isidro egunarekin bat. Egun honetarako, beste ekintza askoren artean, bi aizkolaria gazteren arteko lehia antolatu du Ziotza kirol elkarteak. Bi aizkolarien artean, Joseba Otegi zizurkildar gaztea izango da protagonista nagusia bihar; 3. mailara iristeko ahaleginetan arituko baita plazan. Lau



Igandean mendi irteera izango da Orira. TOLOSALDEKO HITZA

kana erdiko enborrekin ariko dira.

Eta igandean ere izango da zertan parte hartu. Beste askotan egin ohi duten bezala, mendi irteera antolatu dute asteburu honetarako ere. Oraingoan, Ori mendira egingo dute mendizale guztiek. Goizeko zazpitan egin dute hitzordua Joxe Arregi plazan. Pirineoruntz abiatzeko. Menditik behera egin ostean, parrilada egingo dute.

ASTEASU ▶

Isunak ordaintzeko afaria izango da

2003 urtean, Asteasuko plazan AHTren aurkako manifestazio batean zegoen zinegotziari isuna jarri zioten. Orain, dirua bildu eta isuna ordaindu ahal izateko afaria antolatu du ezker abertzaleak Aiztondo elkarteak, *Txantai ekonomikorik ez* lemapean. Afaria 21:00etatik aurrera izango da. Joan nahi duenak gaur bertan izena emateko aukera izango du ohiko lekuetan edo bertan.

ADUNA ▶

Joxerra San Sebastianen kontzertua gaur

San Isidro eguna izango da larunbatean eta Adunan, kontzertua antolatu dute bezperan. Joxerra San Sebastian, Martin musika etxearen sortzailearen kontzertua entzuteko aukera izango da herrian. Orion jaiotako musikaria da San Sebastian, eta Erramun Martikorena edota Juan Mari Beltranekin aritutakoa da. Kontzertua 22:00etan hasiko da Elordi plazako lokalean.

VILLABONA ▶



Villabonako Gaztetxea, Flemingo eraikinean. G. AZKUE

Bihar, gazteen festa Villabonan

Villabonako gazteek, Onddo Gazte Asanbladan bilduta, egun guztirako festa antolatu dute biharko. Jaia goizean hasiko da, Onddo ingurura ibilaldia antolatu dute. 9:00ak inguruan elkartuko dira, jokoak egin eta bazkaldu ondoren, herrira egingo dute berriz ere. Arratsalderako ere prestatu dituzte ekintzak, antzerkia ikusteko edo trikopoteoan parte hartzeko aukera izango da. 21:00ak inguruan bertso afaria izango da, eta hori bukatu ostean, Susmo taldearen eta Villabonako beste talde gazte baten kontzertuak izango dira herrian. Festak, Flemingo aparkalekuan dagoen Gaztetxean jarraituko du.

ZIZURKIL ▶

Loatzo musika eskolako haurren kontzertua

Maiatza Saltsan-eko egitarauak ekintzekin jarraitzen du. Gaur, Loatzo musika eskolako haurren txanda da. 19:00etan izango da hitzordua Atxulondo kultur etxean. Eta haurren hurrengo hitzordua asteartean izango da ipuin orduaren txanda baita. *Antonino apreta* ipuina eskainiko dute, oraingoan Gorringo taldearen eskutik, 18:00etan; hau ere Atxulondo kultur etxean.

ADUNA ▶

Bihar Aiztondoko pala eta frontenis finala Adunan

Aiztondoko pala eta frontenis bikotekako txapelketako azken partidak jokatu dituzte bihar Adunan. Frotenisean, Ortizek eta Etxeberriak, Murua eta Artolaren aurka egingo dute. Nesken artean, Ana eta Miren Amonnarriz, Ezeiza eta Etxebestearen aurka izango dira. Eta mutiletan, Urdanpilleta eta Otermin, Arate eta Mujikarekin arituko dira. 16:00etan hasiko dira pilotalekuan.

Villabona - Kultura

— ANTZERKIA —

Hika antzerki taldea

‘X’

IKUSKIZUNA

Maiatzak 14 Ostirala • Gaueko 22:30etan

GUREA ARETOAN

Udal Kultura Batzordea

ALEGIA ▶

Herritarren Zerrendaren aurkezpena

Ekainaren 13an izango diren Europako hauteskundeetarako ezker abertzaleak Herritarren Zerrenda alderdia sortzeko sinadura.bilketa burutu berri du. Gaur, Herritarren Zerrendaren aurkezpena egingo dute udaletxeko pleno aretoan, 20:00etan izango da ekitaldia.

ALEGIA ▶

Biarritzera joango dira adinekoak

9:15ean abiatuko dira adinekoak Biarritzera; bidean, geldialditxo egingo dute Donibane Lohitzunen. Ondoren, Biarritz bisitatuko dute; jarraian, Oiartzunen bazkaldurako dute Gurutze Berri jate-txean. Arratsaldea, Hondarribian igaroko dute; iluntze aldera izango dira herrian.

ALEGIALDEA ▶

Yeregi, Ropon, Idoate eta Villara garaile herenegun

HITZA txapelketako partidak jokatu zituzten kadeteek Bidaniako pilotalekuan. Madariagak ezin izan zuen jokatu eskumuturra hautsita zuelako; bere ordez, Garmendiak jokatu zuen. Zabala 2-Yeregi 18, Ropon 18-Gutierrez 8, Idoate 14-Goikoetxea 18 eta Villara 18-Garmendia 8.

GAZTELU ▶

Harrobiaren inguruko bilera informatiboa

Gazteluko harrobia izango dute hizpide gaur izango den bilera informatiboa; bertan, harrobiaren inguruko ikusentzunezkoa eskainiko da. Bilera udaletxean izango da 20:00etan. Herenegungo Abiadura Handiko Trenaz jardunaldian ere azaldu zuten harrobiaren proiektua.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ **112**

Alegia-Altzo-Amezketabaltzisketa-Albiztur. Osasun zentroa: 943 65 32 12
Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Baliarrain. Medikua: 88 90 03 (asteazkenak)
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etxea: 67 24 11
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Orexa. Medikua: 68 22 28
Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 46 11 11
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
- ▶ Amaroako dispensarioa: 67 26 37
- ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ Ur kontsoltzioa: 902 30 22 22
- ▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
- ▶ DYA: 943 67 25 36
- ▶ Gurutze gorria: 943 67 48 88 - 943 - 65 14 25
- ▶ Ertzaintza: 943 53 88 20
- ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerbitzuen mankomunitatea: 69 39 30
- GARRAIOAK**
- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
- ▶ Taxia: 67 04 20

GUARDIAKO FARMAZIA
Gaur. Iturrioz, 1., Euskal Herria 3, (Ibarr) 67 09 15

TOLOSALDEKO HITZA
Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoeta. 687 41 01 18.
anoeta@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LAN ESKARIA
Tabernan edo dendan. Neska gazte bat eskaintzen da tabernan edo dendan lan egiteko. Telf: 615 717679.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Energia eskuratzeko iturriak

Argia, ur beroa... eguzkiaren indarrak, lurraren edota egurraren berotasunaz lortzeko bideak eskaintzen dituzte energia berriztagarriak



Argia eta ur beroa lortzeko plakak dira honakoak; eguzkiaren indarra jasotzen dute. O. ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Ura eta argia. Etengailuari eman eta argia izaten dugu eta iturrira gerturatu eta ur hotza, beroa, epela... Neguan berogailua pizten dugu etxean goxo-goxo egoteko. Guzti horretarako energia ohiko instalakuntzetara jotzen du jende gehienak; baina merkatua uste baino zabalagoa da eta argia berriztagarrien alorrak energia eskuratzeko bide desberdinak planteatzen ditu.

Eguzkia, lurra zein egurra dira, besteak beste, argia, argindarra, ur beroa, berogailua... izateko planteatzen diren energia iturriak. Eguzkiaren argia jasotzen duten plakei esker, argindarra eta ur beroa (dutatxeko, arropa garbitzeko, berogailurako)... sortu daitezke. Energia geotermikoa, berriz, lurraren berotasunaz baliatzen da ur beroa sortzeko.

Ura berotzeko sistema merkea da. Eta su bajuko sua ere ura berotzeko aprobetxatu daiteke hodi sistema baten bitartez. Sistema honakoa da: «Egurra erre eta lortzen den berotasuna ura dagoen hodieta pasatzen da; urak lur azpiko azpiegitura zeharkatzen du. Egurra ere ezezik eguzkiarekin, geotermikoarekin (lur azpikoa) edota egurrarekin elikatzen da zorupeko berogailu sistema hori. Horrekin konforta handia eta eraginkortasuna lortzeaz gain, gastu energetikoa oso txikia izaten da», dio gaia bertatik bertara ezagutzen duen Jokin Aldazabalek, Eguzki Indar enpresako arduradunak.

Merkeagoa edo garestiagoa?

Eguzki indarra jasotzeko plakeak, aerogeneradoreak... paisaian integratzen ari dira pisikanaka-piskanaka. Hala ere, horien instalakuntza eta man-

tenua ez al da oso garestia? «Energia alternatiboak *diieselak* dira», di horri erantzunez Aldazabalek; hau da, «instalakuntza oraindik ohiko sistemak baino garestiagoa izan arren, energia berriztagarriak amortizatu egiten dira denboraren poderioz. Gas edota garesoleo instalazioak, berriz, instalatzen diren momentutik gas-tatzen ari dira».

Energia alternatiboak *abertzaleak* direla ere azaldu du: «Eguzkia, egurra... aprobetxatzen baditugu, inork ezin dizkigu horiek merkeago edo garestiago saldu Nazioarteko merkatuan duten kotizazioaren arabera. Horretaz gain, Negutegi efektuan, CO2aren efektua nuloa izaten dute».

Teknologiaren garapena

Energia berriztagarriak, oraingoz, baserrietan, bizitza baka-rrako etxebizitzetan... ezezik,

JOKIN ALDIZABAL
EGUZKI-INDAR-EKO ARDURADUNA

«Energia geotermikoa lurraren berotasunaz baliatzen da ur beroa sortzeko; ura berotzeko sistema merkea da»

«Energia alternatiboak abertzaleak dira, bertakoak; ez daukagu beste inondik ekarri beharrik»

eskoletan, kiroldegietan... ere aplikatzen dira. Hala ere, gaintzeko herriein alderatuz, teknologia garatzeko zailtasunak daudela zehaztu du Aldazabalek: «Estatu espainiarrean, instalazio fotoboltaikoari (argindarra sortzen duena) emandako laguntza justua da eta ez dira instalazio asko jar-tzen. Alemanian, berriz, laguntza handiagoa eman dute eta instalazio asko jarri dira; horrek teknologiaren garapena ekartzen du. Ondorioz, hementxo instalazioetarako hango teknologia sartzen da. Hori politika ekonomikoa da».

Laguntza eskaintzen duten erakundeak ere badaudela azpimarratu du Aldazabalek. Hezkuntza eta Industria sailak ikastetxeetan eguzki indar fotoboltaikoa sartzeko egiten duen kanpaina, esaterako. Baina, bereziki, Energiaren Euskal Erakundeak ematen duen laguntza azpimarratu du: «Gehienbat energia berriztagarriak eta eraginkortasuna bultzatzen ditu», gehitu du Aldazabalek.

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Ibarra. *Divinas.* 20:00, Kultur Etxean.
Tolosa. *Bazen behin gutxi gorabehera...* 21:30, Leidor zineman.
Villabona. *X.* 22:30, Gurean.

DEIALDIAK

Berrobi. Eskolako ikasleen antzerki emanaldia, 17:30ean, Etxolan. Literatur lehiaketaren sari banaketa eta buruhandiak. 21:00etan, herri afaria Urkolan.
Ibarra. Garagardo Festa, 18:00etatik 00:00etara.
Ibarra. Ostiralero mus-tximista Txairon. Izen-ematea, 22:30.

GOIKO IRRATIA

107.0 FM. 19:00, *Komerra.*

KIROLA

GAUR ▶

Futbola.
 ▶ Tolosa-Amaikak Bat (20:00, Berazubi, Gorengo maila).

Areto futbola.
 ▶ Transportes Lakunza-Zaldibi (20:30, Olaederra, 1. maila).
 ▶ Laskorain A-Ext. La Bellota (20:45, Ilaramendi, 1. maila).
 ▶ Euromar k.-Alegia Calcinor (21:00, Antoniano, 2. maila A).

BIHAR ▶

Futbola.

▶ Segura-Intxurre (15:30, Alustiza, Lurraldeko 1. maila).
 ▶ Orioko-Tolosaldea (17:00, Antilla, Lurraldeko 1. maila).
 ▶ Intxurre-Beasain (17:00, Elorri, Gazteen 1. maila).
 ▶ Antoniano-Billabona (15:30, Asti Txiki, Gazteen 1. maila).
 ▶ Tolosa-Amaikak Bat (11:30, Usabal, Nesken Kopa).

Areto futbola.

▶ Alcampo-Usabal sag. (18:00, Elorsoro, Autonomiko 2. maila).
 ▶ Eskolapioak-Lambroa (16:30, Eskolapioak, 2. maila A).

Futbol 7.

▶ Lanbroa Dickens-Fecoma (18:00, Lezo1, 1. maila A).
 ▶ IGA-Batapan (18:00, Beasain 1, 1. maila A).

ETZI ▶

Futbola.

▶ Amara Berri-Tolosa (10:00, Martutene, Gazteen 2. Kopa).

Areto futbola.

▶ El Palmar-Hegoalde (12:00, El Palmar, Emak. Ohor. maila).

MUSIKA

Tolosa. *Hip-hop* festa: DJ King, DJ Voodoox. Mikro irekia. 23:00etan, Maskor tabernan.
Zuzkil. Loatzo musika eskolako haurren kontzertua. 19:00etan, Atxulondon.

ZINEMA

Leaburu. *Sahararren maratoia.* 20:00etan, Gazte gelan.



Nabarralde-koak mintzo

TOLOSA ▶ Ezker abertzaleak antolatuta, Nabarralde ekimenaren hitzaldi-aurrezpena izan zen herenegun udaletxean. Erlantz Urtaşunek Nafarroa osoa hitzaldia eskaini zuen. JOXEMI SAIZAR



AHT-ari buruz, adi

TOLOSA ▶ Herenegun eskaini zuten Abiadura Handiko Trenaz jardunaldien bigarren saioa Anoetako AHT Gelditu! Elkarlana, Gazteluko Harrobiaren Aurkako eta Jaizkibelgo Superportuaren Aurkako taldeetako kideek. Gaur, azken saioan, alderdi politikoak eta sindikatuak ariko dira, 20:00etan, Kultur Etxean. J. SAIZAR

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 191.a.
Orrialdeak. 28.
Tirada. 5.500 ale.
Gaiak. Anbon Bandres Euskal Herriko mendizaletasunaz solasean, Iñaki Linazasorori agurra, Arantzazu Azpiroz...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
 ▶ Nafarroa 6, behe. Tolosa.
 ▶ 943 65 50 04.
 ▶ galtzaundi@galtzaundi.com
 ▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 212.a.
Orrialdeak. 32.
Tirada. 2.500 ale.
Gaiak. *Kutsidazu*-ren arrakasta, Ateasuko zaldi eguna...
Argitaratzailea. M. Larramendi Bazkuna.
 ▶ Berria 47, 3. esk. Amasa-Villabona.
 ▶ 943 30 07 32.
 ▶ aiurri@topagunea.com
 ▶ www.aiurri.com

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK, IGONE

Farola jaurtiketan Euskal Herriko txapelduna. Irurako eta Orioko lagunek.



URTE ASKOAN
 Olatz Etxabe Vitoria (Tolosa).
 Gaur 3 urte. Zorionak eta mui handi bat alaba, amaboa eta Alitzberren partetik.



URTE ASKOAN
 Haizea Saez Rezola (Amezketeta).
 Gaur 3 urte. Zorionak Erremetaingoa familia eta Ekhiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Maria Pilar Lasa (Villabona).
 Zorionak ebekoan partetik eta, bereziki, zure semearen partetik.

HITZA,
 zorion agurren tartea
 Mesedez,
 ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5 behe - Tolosa)

HIPHOP

Ostirala, maiatzak 14
Dj King
Dj Voodoo x
mikro irekia
 23:00etatik aurrera

PUB MASKOR (TOLOSA)